

Gabonetako jostailu-katalogoetan, sexismoa nagusi

Jasone Zarate Emiliok artikulua idatzi du *Pikara* magazine webgunean, Gabonetako jostailu-katalogoetako irudi sexistak aztertuz: “Mezua orain dela 30-40 urteko berbera da”.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

JASONE ZARATE EMILIOK urteak daramatza jostailu etxeek Gabon garaian banatzen dituzten katalogoak aztertzen. Nahiz eta urteak pasa, betiko paisaia gailentzen dela iruditzen zaio: neskenentzat orrialde arrosa-arrosak eta mutilentzat urdinak edo kolore indartsukoak. Neskak ume zain eta ilea apaintzen ari dira eta mutilak abenturazaleak eta kirolzaleak dira. Hausnarketa orokorraz gain hainbat jostailu etxeren katalogoen errepasoa egin du, adibide zehatzak emanez.

Zarate Emiliok *Pikara* magazine webgunean argitaratu du gogoeta. Hona pasarte batzuk:

“2005ean Chicco etxeari eskutitza bidali nion, eta 2009an, beste bat Imaginariumi, gaia aipatuz, hausnarketa egin eta kritikatu. Uste bezala, eze-



Max Centerrek egindako iragarki sexista: “Ni Barbie nintzen eta zu Hot Wheels-eko txapelduna. Ados?”, dio irudiko neskatxak.

rezean geratu zen dena. Baliteke gauza zehatzen batean desberdintasun txikiren bat izatea, baina sako-neko mezua bera da, eta larriagoa dena, mezua orain dela 30-40 urteko berbera da (zifraren bat aipatzearen).

Arazoa hezkuntzan dago, esaten dugu. Eta nik galdetzen dut: “Ze-

“Etxean gurasook frogatzen dugu, haurrek beraientzat ez omen diren orrialdeak nola pasatzen dituzten. Ez dakite gustatzen zaien ala ez”

nek hezten du? Zein da hezkuntza horren arduradun? Zeinek transmititzen ditu baloreak, jarrerak, rolak eta estereotipoak? Eskola al da errudun bakarra?

Etxean gurasook frogatzen dugu, haurrek beraientzat (neskek ‘mutilentzakoak’ eta mutilek ‘neskentzakoak’) ez omen diren orrialdeak nola pasatzen dituzten. Ez dakite gustatzen zaizkien ala ez, edo egunen batean desira ditzaket. Ateak ixten zaizkie deskubritzeko eta probatzeko. Bestalde, jaiotzan eman zitzaizkien sexuaren arabera rol bat ematen diete.

Seme-alabekin amek eta aitek duten egitekoa asko azpimarratzen dute (eta ondo egina), haiei garatzen laguntzeko eta abar. [Katalogoetan] aitek funtzio gehiago dituzte;

hori bai oso markatuak: mahai jolasak, kotxeak, eskalextriak, pintura, energia, aginduzko tablet antzeko teknologiak... darabiltzate, eta batzuetan mutilekin baino ez. Amak gutxi ageri dira (umeekin jolasteko denborarik ez daukagulako izango da) eta agertzen direnean alabekin irakurtzen ari dira edo haur txikienekin lurreko zapian eserita daude.

Gure neska eta mutilek, bihar-ko gazteek, etziko helduek, jolas-tuz ikasten dute; eta jostailuen eta jolasen arabera balore eta jarrera sexistak betikotu egiten dira. ■



MARCOS
skindegia

**Benetako
aitzinako ogia**

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)